

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA - 2022-2026

012968 IES Txingudi BHI

2022-2026 epealdirako ikastetxe honek prestatu duen Hizkuntza Normalkuntzako Proiektu honek ikastetxearen Organo Gorenaren onespena duela aitortzen dut.

EREMUEN GAINEKO HAUSNARKETA

Justifikazioa	Lau urtetik behin egokitzen zaigu atzera begiratzea egindako lana baloratzeko eta aurten ataka horretan gaude. Indarguneen artean, gure buruari aitortzen diogu HNP eta HNBaren sendotze tartea izan dela, hots, bai hizluntza teknikaria zein ezarritako planean, ekimen gehienak etenik gabe urtero-urtero aurrera eramaten ditugula, inurri lana eginez, nahiz eta ikasleen erabileran ohiko zailtasunak dauden. Urrats berri batean murgilduta gaude, ELKARHITZ proiektuarekin, klaustroa inplikatzuz gure metodologia hobetzeko.
Eremu Instituzionala	Eremu instituzionalean, ohi bezala, ikastetxeko eragile orori euskararen lehen mailako presentzia aitortu behar diogu gure erabakitze organu guztietan. Organu horietako partaide garen hiztunok erabilera ziurtatzen dugu maila gorenean eta praktikan euskararen aldeko eragile eraginkorrak garelakoan gaude. Kide guztiek euskaraz dakitela bermatzea. Erronka, Elkarhitz proiektua aurrera eramatea metodologian eragiteko.. Ikasleekin osatutako Euskara Batzordeari jarraipena eman eta indartzea.
Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	Kide guztiek euskaraz dakitela bermatzea. Erronka; euskararen aldeko konpromisoa.
Eskola kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera	Irakasleok gara indargune nagusia eta horri esker lortzen dugu euskararen beharra praktikan aplikatzea eredu izateko ikasleen aurrean. Gelan jartzen dugu indar nagusia baita kanpoko ekintzetan ere, ikasleen gutxieneko ziurtatze aldera. Erronka, ELKARHITZ proiektua aurrera eramatea metodologian eragiteko.. Ikasleekin osatutako Euskara Batzordeari jarraipena eman eta indartzea.
Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	ELKARHITZ programa aurrera eramatea klaustro guztia inplikatzuz gure metodologian eragiteko. IKASLEEN EUSKARA BATZORDEA indartu urte urte jarraipena eman.
Gelaz kanpoko jarduerak	Ikasleen artean euskararen erabilera murrizta dela ikusita, eremu informalarik ere garrantzia eman behar zaio. Horretarako garrantzitsua da Guraso Elkartearekin elkarlana eta komunikazioa.
Eremuaren gaineko hausnarketa eta 4 urteko plangintzarako irizpideak	Euskal kulturaren sakontzeko Xiberua tailerrarekin jarraitzea. Guraso Elkarteak sortu duen aisialdi taldearekin harremanak sendotzea.
Bestelako tresnak	
Eremuen lehenetsuen inguruko hausnarketa	Hiru eremu nagusiak aztertuta, Txingudi BHIko lehenetsuna eskolako kideen hizkuntzazko prestakuntza eta erabilera bultzatzea izango da. Honetan jarriko dira hurrengo lau urteetako indarrak.

4 URTEKO PROIEKTUA

1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDU ETA ERABILERA KOHERENTEAK

1.1. Ikastetxearen antolamendua

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
ESKOLA KONTSEILUA Bertako jardun osoa euskara hutsean egiten saiatzea eta partaideren batek (normalean gurasoren batek) ez badu gaitasun osoa, bitarteko (tekniko nahiz pertsonalak) jarri aurreko baldintza betetzeko.	Zuzendaritza, Eskola kontseilua edo Guraso elkarte, HN Batzordea	Mantentze jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓

1.2. Normalizazioa sustatzeko erabakiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Dokumentu guztiak, ikastetxean bertan sortzen ditugunak eta kanpotik jasotzen ditugunak, euskara hutsean daudela ziurtatu. AJA, Curriculuma, etab. bi hizkuntzetan etorriko zaizkigu.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak	9	%90	✓	✓	✓	✓

1.3. Kanpoko eragileekin harremanetarako hizkuntza-irizpideak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
ERAKUNDE OFIZIALAK Beti euskaraz. Deskuidoan iritsiko balitzaigu erdara hutsean komunikazioaren bat, itzuli eta euskaratzea eskatu. Ekintza ofizialen bat erdara hutsean egitea proposatuko balute, gure desadostasuna aurkeztu eta euskara hutsean izan dadin eskatu.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak	10	%100	✓	✓	✓	✓
BESTELAKOAK Harremanetarako erabiltzen dituzten dokumentuetan, Hego Euskal Herrian bederen, gutxienez bi eletan egotea eskatuko dugu. Euskarazko produktu, langile euskaldunak lehenetsiko eta eskatuko ditugu. Adibidez: irteerak egiterakoan, autobus enpresei txofer euskaldunak eskatuko dizkiogu.	Idazkaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓

1.4. Hizkuntza-irizpideak ikastetxearen eremu digitalean

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Ikastetxearen webgune nagusian euskararen nagusitasuna bermatzea.	Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Mantentze jarduerak	10	%100	✓	✓	✓	✓
Sare sozialetan euskara hutsean funtzionatzea ikasleen ohitura digitaletan eragin nahian.	Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Sentiberatze-motibazio jarduerak	10	%100	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
Testuen ekoizpena euskaraz egin eta behar den kasuetan itzultzaileak erabili (euskara-gaztelania), "Euskalbar" instalatuz, hiztegi digitalak orokortuz ikasle eta irakasleen artean.	Zuzendaritza, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Prestakuntza edo trebatze jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓

2. ESKOLAKO KIDEAK ETA EREMU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA

2.1 Ikasleak: motibazioa, jarrerak, portaerak eta emozioak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
MOTIBAZIOA - GIROTZEA: Euskarazko kultur erreferenteak Eredu formalaz gain, eskolak hainbat aukera ditu eremu informala lantzeko ere. Hala nola, jolas-garaia, jangela, irteerak eta ekintzak,... Horietan guztietan euskarazko kultura txertatzea beharrezkoa da (musika, antzerkia, liburu eta komikiak,...) eta modu honetan kultur erreferenteak eskainiko zaizkie ikasleei.	Zuzendaritza, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Sentiberatze-motibazio jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓

2.2 Ikasleak: komunikaziorako konpetentzia.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
KOMUNIKAZIO GAITASUNA: Ahoz zein idatziz ikasleen euskarazko gaitasuna hobetzea da helburua. Horretarako, euskaraz ikasgaiaz gain, garrantzitsua izango da euskaraz jasotzen diren beste arlo guztietan ere arreta jartzea hizkuntzaren kalitatean, ebaluazioaren parte bilakatuz. Honela, eskolako Hizkuntza Proiektuaren helburuekin bat egingo da. Ildo horretan sakonduko da, euskararen erabilera ebaluazioaren parte bilakatzea ikasgaietan.	HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Ebaluazio jarduerak	7	%70	✓	✓	✓	✓

2.3 Ikasleak: erabilera.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
INTERAKZIO DIDAKTIKOA: 21-22 ikasturtean abiatu dugun ElkarHitz proiektuaren baitan, gelako elkarrekintza didaktikoari arreta berezia jartzen zaio. Beti ere, ikasleek euskaraz ahalik eta gehien hitz egitea helburu izanik. Interakzio hau hobetzeko klaustroak formazioa eta urrats praktikoak egingo ditu datozen urteetan zehar, gelako praktika hobetzea helburu hartuta.	Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...), Besteren bat (ikastetxez kanpoko eragile bat...)	Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	8	%80	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
GUTXIENEOAK ZEHAZTU-PARTEKATU: Ikasleen aldetik euskararen erabilera oso apala den egoeratan, gutxieneko mugak edo "marra gorriak" zehaztuko dira irakasleen adostasunez. Esaterako, irakasleei euskaraz egin behar zaiela beti eta hori ez bada hala nola jokatu dugun guztiok.	HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	8	%80	✓	✓	✓	✓
IKASLEEN EUSKARA BATZORDEA Ikastetxe barneko hainbat ekintza egiteko Euskara Batzordea eratuko da eta bertan maila guztietako ikasleek hartuko dute parte elkarrekin. Horrela, lidergotza linguistikoa landuko da eta euskararen aldeotasuna sarituko da ikasleen artean.	HN Batzordea	Sentiberatze-motibazio jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓
Ikasleek hitza hartu - irakasleek hitza eman Antolatzen diren ekitaldietan, ikasleak protagonista bihurtzea garrantzizkoa izango da, eurak izatea aurkezle eta antolatzaile ahal den neurrian. Jendeaurrean, taldeak gidatzean, edota gelaz gela oharrak ematean euren lidergotza horrek euskaraz funtzionatzen duela konturatzea da helburuetako bat.	HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓

2.4 Ikasleak: euskal kulturaren transmisioa.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
GIROTZEA: Euskarazko kultur erreferenteak Eremu formalaz gain, eskolak hainbat aukera ditu eremu informala lantzeko ere. Hala nola, jolas-garaia, jangela, irteerak eta ekintzak,... Horietan guztietan euskarazko kultura txertatzea beharrezkoa da (musika, antzerkia, liburu eta komikiak,...) eta modu honetan kultur erreferenteak eskainiko zaizkie ikasleei.	Zuzendaritza, HN Batzordea, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)	Sentiberatze-motibazio jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓

2.5 Irakasleak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
HIZKUNTZA GAITASUNA ETA FORMAKUNTZA Irakasleen artean hizkuntzaren kalitateari buruzko hausnarketa eta kontzientzia bultzatuko da, bai maila formalean baita informalean ere. Horretarako, besteak beste, formazio saioen berri emango zaio klaustroari (Irale,...) edota behar espezifikoak ikusten badira berariazko saioak prestatuko dira eskolan.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Prestakuntza edo trebatze jarduerak	7	%70	✓	✓	✓	✓



Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
<p>INTERAKZIO DIDAKTIKOA: 21-22 ikasturtean abiatu dugun ElkarHitz proiektuaren baitan, gelako elkarrekintza didaktikoari arreta berezia jartzen zaio. Beti ere, ikasleek euskaraz ahalik eta gehien hitz egitea helburu izanik. Interakzio hau hobetzeko klaustroak formazioa eta urrats praktikoak egingo ditu datozen urteetan zehar, gelako praktika hobetzea helburu hartuta.</p>	<p>Zuzendaritza, Irakasle talde bat (Ziklo, mintegi bateko kideak...)</p>	<p>Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak</p>	8	%80	✓	✓	✓	✓
<p>IRAKASLEEN INTERAKZIOA. Irakasleen arteko harremanak euskarazkoa izan behar du, D ereduko ikastetxea delako eta ikasleen aurrean ereduak jarri behar dutelako. Ardura pertsonal eta kolektiboa izango da eremu formal eta informaletan euskaraz jardutea.</p>	<p>Zuzendaritza, HN Batzordea</p>	<p>Hausnarketa jarduerak, Mantentze jarduerak</p>	10	%100	✓	✓	✓	✓

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
PARTAIDETZA eta MOTIBAZIOA Normalkuntza taldetik bultzatzen diren ekimen guztietan irakasleen parte-hartze librea sustatuko da, giro onaren bidez, irakasleen arteko harremanak eta ikasleekin sortzen direnak indartu egiten direlako. Bakoitzak bere ekarpenarekin taldearen dinamikak indartzen dituela sentitzen duenean, proiektuari zentzu baikorragoa ematen dio. Orain arte bezala, ekimenetako partaidetza kolektibo horrek (Korrika, Xibero tailerra, Txingudify musika zerrenda,...) irakasleen motibazio iturri izaten jarraitzea garrantzitsua da.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak, Prestakuntza edo trebatze jarduerak	9	%90	✓	✓	✓	✓

2.6 Administrazio eta zerbitzuetako langileak.

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
KOMUNIKAZIO GAITASUNA Euskara hutsean prestakuntza. Beraien sektorean antolatzen diren eskaintzetan parte hartzea bultzatu.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Prestakuntza edo trebatze jarduerak	6	%60	✓	✓	✓	✓
PARTAIDETZA-INPLIKAZIOA Proposatzen diren hainbat ekimenetan, beraien inplikazioa eta parte hartzea bultzatu.	HN Batzordea	Sentiberatze-motibazio jarduerak	7	%70	✓	✓	✓	✓
MOTIBAZIOA-GIROTZEA Irakasleekin batera, Hezkuntza Proiektuaren parte direla senti daitezela.	Zuzendaritza	Hausnarketa jarduerak	9	%90	✓	✓	✓	✓

3. FAMILIAK ETA KOMUNITATEA

3.1. Familiak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
HARREMAN HIZKUNTZA Euskara da nagusi eta beste hizkuntza batean bakarrik zuzenduko gatzaizkie, beraiek zuzenean eskatzen badigute.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Mantentze jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak	8	%80	✓	✓	✓	✓
FAMILIA ERAGILE Bere ohiko organoetatik (Eskola Kontseilua zein Guraso Elkarteak), klaustroan onartzen edota proposatzen ditugun ekimen eta proiektuen berri ematea. Honela, seme-alaben hezkuntza proiektuan eragile izan daitezten.	Zuzendaritza, HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Erabakiak adosteko prozesuak	7	%70	✓	✓	✓	✓

3.2. Komunitatea, eskolaz kanpoko jarduerak

Helburu zehatza	Ardura	Jarduera mota	Adierazle mota kuantitatiboa	Adierazle mota kualitatiboa	Denboralizazioa			
					22-23	23-24	24-25	25-26
IRTEERAK-EGONALDIAK Egiten ditugun guztietan, saiatzen gara euskararen presentzia ziurtatzen ekitaldi guztietan, ikasleen erabilera areagotzeko.	HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak			✓	✓	✓	✓
ERAKUNDEEN ESKUHARTZEA Udalarekin batera parte hartzen dugu euskararekin erlazioa duten ekintzetan: antzerkia, mintzodromoa, musika...	HN Batzordea	Antolaketa jarduerak, Sentiberatze-motibazio jarduerak			✓	✓	✓	✓